

Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte euskal dantza konpainia eta sortzaileen nazioartekotzeko ekintza plan bat garatzen aritu da.

2013. urtean online katalogoa sortu genuen, eta Fira Tárrega eta Feria de Huesca-ko azoketan egon ginen katalogoa aurkezten.

2014. urtean bideo bat egin dugu, katalogoa osatzen duten konpainia bakoitzaren lan baten laburpenekin. Hemen katalogoa eta bideoa ikusteko aukera duzue.

<http://www.addedantza.org/catalogo/>

2014. urtean egondako lekuak: IETM Montpellier, Burdeos Crossing, Exchanging, Meeting: Questioning The Impacts Of Mobility topaketetan eta Tanzmesse-ko azokan.

Topaketa hauetan harremanak sortu eta aukerak zabaldu dira, hauek garatzen gaude bide honetan lan egiten duten beste erakundeekin batera.

Ekintza guzti hauek Toni Gonzalez Escena Internacional BCN aholkularitzarekin garatu dugun Nazioartekoratze Plan batean jasotzen dira.

**Datorren Urriak 25 larunbatean** BAD Jaiadiaren programaketaren barruan <http://badbilbao.com/bad2014/eu/>, lan-mahai bat antolatu dugu, egindako plan honen aurkezpena egin, eta plan honen bueltan dauden edukiak eztabaidatu eta garatzeko helburuarekin. Gure esku internazionalizatzeko tresnak zein diren antzemateko.

Bildutako informazioarekin, gure errealitatean egiteko ekintzak eta aukerak zein diren ikusi eta ohiko helburuak diseinatzeko topaketa planteatu nahi dugu.

**Jardunaldia 11:00etatik 14:00tara izango da Bilboko Sala Rekalden (erakusketa gelan).**

Topaketa hau dantzaren sektoreari dago zuzendua, eta ADDEk proposatzen dituen edukien bueltan bere esperientzi eta ikuspuntua eman nahi duen edonori. Konpainia, sortzaile eta internazionalizazioan murgilduta dauden erakunde guztiei ere zuzendua egongo da.

Toni Gonzalez-en presentziarekin ere kontatuko dugu, bere esperientzia emango diguna.

**Urriak 25 Larunbata**

**11.00 - 14.00**

**Sala Rekalde**

**11:00-12:00.** *Euskal Herriko dantza lanen katalogoaren nazioartekotze plana.*

**12:00-12:30.** *Lana sarean.*

**12:30-13:00.** *Ikusgai egoteko espazioak.*

**13:00-13:30.** *Eztabaida.*

**13:30-14:00.** *Ondorioak eta amaiera.*

**Bertaratze baieztapenak Urriak 20 Astelehena arte [info@addedantza.org](mailto:info@addedantza.org)  
helbidean.**

ANTOLATZAILEA:

ADDE, Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkarte.

LAGUNTZAILEA:

BAD Jaildia.

PARTE HARTZEN DUTE:

La Fundación

Etxepare Institutua

DIRU LAGUNTZA EMATEN DU:

Eusko Jauriaritzako Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura Saila.